

bizkaiko hirugarren
sektorearen behatokia

observatorio del
tercer sector de bizkaia



BIZKAIKO HIRUGARREN SEKTOREAREN DEFINIZIO BAT BILATZEKO PROZESUA

Aurkezpena

Hirugarren sektorearen definizio bat ematea ez da lan erraza, ez baitago adostasun argirik, batez ere sektore horretan erakunde jakin batzuk sartzeko edo bazter uzteko irizpideak zehazterakoan.

Itxura denez, kontzeptua guztiz baldintzatuta egon da, definizio eskas baten ezaugarriak hartu baitira aintzat (hirugarren sektoretzat jo da sektore publikoaren barruan ez dagoen –lehen sektorea– eta, era berean, irabazizko sektorearen barnean ez dagoen –bigarren sektorea–guztia); eta horrek nolabait ere eragin nabaria izan du kontzeptu honen zehaztugabetasuna puzteko. Gai honetaz hausnarrean aritu diren egileek ezin izan dute adostu eredu bakar bat zenbait kontzeptu ulertzeko, hala nola, gizarte-ekonomia, hirugarren sektorea, irabazi asmorik gabeko sektorea, gizarte-ekintzako hirugarren sektorea... ulertzeko. Dena dela, kontu bat geratu da argi: izendapenen ugaritasuna ikusita, bistan dago gertakari aberatsa dugula aurrean eta ikuspegi askotatik azter dezakegula.

Gaur egungo egoeran, gero eta itxuragabetuago daude gizartearen ongizatea elkarbanatutako erantzukizun gisa onartu dezaketen eta harreman-gizartea (estatua, merkatua, hirugarren sektorea...) deitutako horren barruan sartuta dauden eragile edo agenteen arteko mugak. Hala, bada, lehen aipatu ditugun kontzeptuen gaineko eztabaidak, ziur asko, gero eta tamaina handiagoa hartuko du eta, era berean, gero eta konplexuagoa izango da. Alabaina, –eztabaida hori, zalantzarik gabe, guztiz interesgarria dela jakin arren– hori ez da agiri honen helburua.

Agiri honek duen helburu bakarra da Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokiaren taldeak egin duen hausnarketa aditzera ematea. Izan ere, Behatokiaren taldea lanean aritu da hirugarren sektorearen definizio bat –batez ere, definizio eraginkor bat– bilatze aldera. Hortaz, bada, hemen ez dugu gertakariaren deskribapen sakonik eta ezin eztabaida daitezkeen horietakorik egin nahi. Aitzitik, hemen, hausnartze-prozesuaren esperientziatik abiatuta, ildo horretan izan diren ekarpenik garrantzitsuenak bildu eta antolatu nahi ditugu, laburpen gisa, azken batean, horiek gakoak izango baitira eta gertakariaren kontzeptua argitzeko zantzuak emango baitizkigute.

Gizarte-ekonomia

Egile batzuek zentzu zabalean hartzen dute **gizarte-ekonomia** (eta, beraz, hirugarren sektorearen zati bat hartzen dute barne); ildo horretan, gizarte-ekonomiaren barruan sartzen dute “sektore publikokoak ez diren erakundeen multzoa, betiere, erakunde horien funtzionamendua eta kudeaketa demokratikoa bada, bazkide guztiek eskubide eta betebeharrak berberak badituzte, irabazien banaketako eta jabetzako erregimen berezia badute, eta, hortaz, ekitaldian izan dituzten soberakinak erakundea handitzeko eta bazkideei eta gizarteari egiten dizkieten zerbitzuak hobetzeko baliatzen badituzte”¹. Nola edo hala, gizarte-ekonomiako erakundeak kapitalismoak ezarritako mugei gizarteak emandako erantzun bat dira, gizartearen ongizatea eta berdintasuna baitituzte xede.

Ildo berean, Europako Batzordeak azpimarratu duenez, honako alderdi hauek hartu behar dira kontuan, gizarte-ekonomiaren arloko erakunde-multzoaren ezaugarriak zehazteko eta, era berean, kapital-enpresetatik desberdintzeko: “pertsonak eta sozietatearen helburuak lehenetsia dute kapitalaren gainetik; atxikitze modua borondatezkoa eta irekia da, eta erakundearen kontrol demokratikoa kideen eskuetan dago oinarrietatik hasita; kideen eta erabiltzaileen interesak eta interes orokorra bateratuta daude; elkartasunaren eta erantzukizunaren printzipioak aldeztu eta aplikatzen dira; kudeatze-lanetan autonomia dago eta, botere publikoei dagokienez, independentzia”.²

¹ Frantzia eratuak Mutualityen, Kooperatiben eta Elkarten Jarduerak lotzeko Estatuko Batzordeak (CNLAMCA) definizio hori onetsi zuen 1982. urtean, “Gizarte Ekonomiaren Gutuna” izenekoaren bidez.

Era berean, guztiz argigarria da Ekonomia Sozialeko Espainiako Enpresa Konfederazioak (CEPESek) emandako definizioa. Erakunde horren arabera, merkatuan edo gizartean aritzen diren jarduera ekonomiko guztiak gizarte-ekonomia dira, edozein formula juridiko dutelarik ere, baina, betiere, honako printzipio hauek badituzte: “antolakuntza demokratikoa”, “pertsona kapitala baino lehenago dago”, “jabetza horizontala”, “mozkinak/emaitzak taldearen irizpidea aintzat hartuta banatzen dira”, “ingurunearekin bereziki solidarioa da” eta “gizartearen kohesioa sustatzen du”.

Hala, gizarte-ekonomiaren barruan, bi erakunde-multzo handi ditugu³:

- Batetik, merkatu pribatuen ekoizleen multzoa: enpresa hauek sortu dira beren bazkideen beharrak merkatuaren bidez asebetetzeko (ondasunak eta zerbitzuak sortuz, aseguratuz edo finantzatzuz), eta haietan mozkinak banatzeko eta erabakiak hartzeko ardura ez dago zuzen lotuta bazkide bakoitzak jarri duen kapitalari (haietako bakoitzak boto bana duela, alegia); horrenbestez, enpresa hauek antolakuntza demokratikoa dute, eta mozkinen banaketa ez dago lotuta bazkide bakoitzak jarri duen kapitalari. Aipatzen ari garen enpresak honako hauek dira, beraz: *kooperatibak, mutualitateak, lan-sozietateak...bai eta ohiko merkataritza-sozietateak ere, betiere, beren estatutuetan jasota dauzkaten helburu sozialen xedea mozkinak handiagotzea ez bada...*
- Bestetik, etxeen zerbitzura dauden eta merkatu pribatukoak ez diren ekoizleen multzoa: instituzio pribatu hauek **irabazi asmorik gabekoak** dira, eta, ekoizpen-jarduera batean aritzen badira ere, etxe-multzo jakin batzuei saltzekoak ez diren zerbitzuak ekoizten dituzte, eta, gainera, haien baliabide nagusiak borondatezko ekarpenen bidez eskuratzen dituzte, hain zuzen, etxeek –kontsumitzaileak diren aldetik– egindako ekarpenen, administrazio publikoen ordainketen eta jabetza-errenten bidez. Aipatzen ari garenak honako hauek dira: *personei zerbitzu egiten dieten elkarteak, fundazioak...*

Erakunde horiek irabazi asmorik gabekoak direla ulertzerakoan, bi ikuspegi desberdin izan ditzakegu gogoan:

- Zentzu finalista kontuan hartzen duen ikuspegitik aztertuta, irabazi asmorik gabe erakundeak (**not for profit organizations**) dira gizartean dauden beharrezan asebetetzeko helburua dutenak, edo, bestela esanda, erakunde hauentzat, bazkideei edo gizarteari zerbitzuak egiteko xedea lehentasuna du irabazteko helburuaren gainetik.
- Beste alde batetik, mozkinak ez banatzeko printzipioaren ikuspegitik hartuta –eta ikuspegi horixe da hedatuena–, irabazi asmorik gabeko entitateak (**not for profit organizations**) dira, beren eratzeko arauak jarraiki, guztiz debekatuta dutenak lortzen dituzten mozkinak erakundeak kontrolatzen duten edo erakundearen legezko jabeak diren pertsonen artean banatzea.

Hirugarren Sektorea

Hirugarren sektoreaz hitz egiten dugunean, sarritan, herritarren eremuari dagokion espazioaz ari garela ematen du, eta espazio hori zorrotz desberdintzen dugu hala Estatutik nola

² Kooperatiben, Mutualitateen, Elkarten eta Fundazioen Europako Erkidegoko Kontsulta Batzordeak azpimarratu dituen oharrak.

³ Honen oinarrian dagoen terminologia ondoko aldizkarietan dago jasorik: Claves Rafael eta Monzón Jose Luis (2001). *Economía social y sector no lucrativo: actualidad científica y perspectivas*. CIRIEC España, Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa, 37. zk., Centro Internacional de Investigación Inform. sobre la economía pública social y cooperativa, Espainia.

merkatutik; hala ere, ez dugu ahaztu behar batzuetan hirugarren sektorea eta gizarte-ekonomia terminoak bateratu egiten direla. Ikuspegi horretatik aztertuta, hirugarren sektorea terminoak bat egingo luke **irabazi asmorik gabeko sektorearekin**.

Hirugarren sektoreko edo irabazi asmorik gabeko sektoreko erakundeen multzoak, horrela ulertuta, ez du gizarte-ekonomia terminoa azaltzean deskribatu dugun merkataritzako izaera argi hori. Nolabait esateko, hirugarren sektoreak ez ditu merkaturiko legeak betetzen. Hirugarren sektorearen motibazioa aldaketa da, betiere, interes orokorreko helburuak lortzeko; hala ere, ez du agintzeko botererik lortu nahi. Aitzitik, sektore honen funtsa eta muina zerbitzua bera da. Ikuspegi horretatik abiatuta, merkatuaren sektoreko erakundeak ezin dira inola ere sartu Hirugarren Sektorearen definizioan; izan ere, merkatuaren sektoreko erakundeek gizarte-arloan duten ekarpen nagusia eta joera ondasunak eta zerbitzuak merkaturian saltzea baita (haien helburua ikusita, erakunde hauen jarduera “irabazteko asmokotzat” jo liteke gehienbat, berdin dio irabazteko asmorik duten edo ez).

Bestalde, horrez gain, hirugarren sektorea edo irabazi asmorik gabeko sektorearen definizioan, gailentzen den ikuspegia bigarren kontzeptuarena da, alegia, irabazteko asmorik ez izatea, hau da, posibleak ez direla banatzen. Eta irizpide horixe da, izan ere, azken batean desberdintasunik handiena ekartzen duena gizarte-ekonomiaren kontzeptuarekin alderatuta, betiere, lehen aipatutako definizioak oinarritzat hartuta. Era horretan, ezin ditugu barne hartu irabazitako posibleak kideen artean banatzeko aukera ematen duten erakundeak.

Bi irizpideak kontuan izanik, honako hauek arau orokorretik kanpo geratuko lirateke: *kooperatibak⁴, mutualitateak, lan-sozietateak, merkataritza-sozietateak... bai eta, era berean, baliabide nagusiak egindako salmenten bidez eskuratzen dituzten fundazioak edo elkarteak ere, nahiz eta posibleak ez banatu (dena dela, alderdi honen ñabardurak zehaztea kontu korapilatsuagoa da).*

Hala, bada, hirugarren sektorearen edo irabazi asmorik gabeko sektorearen barruan honako hauek baino ez lirateke sartuko:

- Merkaturikoak ez diren ekoizleak deitutako erakundeak, pribatuak, etxeen zerbitzura daudenak: erakunde pribatu hauek administrazio publikotik kanpo daude, irabazi asmorik gabekoak dira, eta ekoizteko jardueran aritzen dira, baina baliabide nagusiak ez dituzte eskuratzen ondasunak eta zerbitzuak merkaturian salduz, eta, era berean, salmenta hori ez da haien jarduera nagusia. Irabazi asmorik gabeko erakunde hauek (“non profit organization” ikuspegitik aztertuta) egiten duten jarduera “irabazi asmorik gabekotzat” jo daiteke (merkataritzako izaera garbirik gabekoa baita). Oro har, hemen sar daitezke *fundazioak, elkarteak...*
- Etxeei zerbitzu egiteko helbururik ez duten erakundeak, hau da, ekoizpen-jarduerarik egiten ez dutenak (zerbitzurik egiten ez dutenak), eta, horren ordean, ordezkaritzan aritzeko, eskubideak aldarrikatzeko eta aldezteko zeregina betetzen dutenak. Oro har, hemen, era berean, sar daitezke *fundazioak, elkarteak...*

Hala ere, irabazi asmorik gabeko sektorea edo hirugarren sektorea izeneko kontzeptuan bazter utzi diren erakunde batzuk lehen aipatu dugun gizarte-ekonomia kontzeptuaren barruan sartuta zeuden (honelako erakundeak, irabazi asmorik gabekoak izan arren, merkaturian aritzen dira, baina haien helburua ez da merkaturia bera). Bestalde, gizarte-ekonomia kontzeptu horretan ezin sar zitezkeen hainbat erakunde, berriz, hemen barne hartu dira (irabazi asmorik gabekoak diren eta merkaturian aritzen ez diren erakundeak).

⁴ Gizarte-ekimenekoak alde batera utzita.

Hirugarren sektorearen edo irabazi asmorik gabeko sektorearen bereizgarriak

Sektore honi buruz era askotako definizioak⁵ eman dira argitara; horiek horrela, hainbat aldagai bereiz ditzakegu, aldagai horiek bateratzea (denak edo haietako batzuk) oso lagungarria izan baitaiteke irabazi asmorik gabeko sektorearen kontzeptua argitzeko.

Hona hemen erakunde hauen ezaugarriak:

- Legez eta juridikoki egitura **formalizatuta** dute: *irizpide honi jarraiki, era ofizialean erregistratu gabe dauden erakundeak ez dira barne hartuko, ez eta arlo informalean gizartean esku hartzeari dagozkion eremuetan zentzurik zabalenean ulertuta egindako lana ere.*
- **Pribatuak** dira, gobernuz kanpokoak, eta administrazio publikoetatik banatuta daude: *zalantza asko pizten bada ere, oro har, erakunde hauek bazterterakoan, ez da gehiegi kontuan hartzen erakundea neurri handi batean administrazio publikoaren mende egotea finantzatzeko garaian.*
- **Autogobernurako** gaitasuna dute, beren kontuak era autonomoan kontrolatzen eta kudeatzen dituzte: *irizpide honek zailtasun handia ekartzen du erakunde batek kudeatzeko duen autonomia eta independentzia neurtu ahal izateko, administrazio publikoak edo beste edozein enpresak duenarekin konparatuta.*
- **Irabazi asmorik gabekoak** dira, mozkinik lortuz gero, mozkin horiek erakundearen xedea hobeto betetzeko lagungarriak diren zerbitzuetarako edo jardueratarako baliatu behar direlako: *hala ere, irabazi asmorik ez izatea bi ikuspegitik uler liteke... beraz, eztabaidarako zalantza gutxiago sortuko duen desberdintasun argiago bat ezartze aldera, gizarte-ekonomiako gainerako erakundeei dagokienez... hirugarren sektoreko erakundeak bereizterakoan, normalean, kontuan hartzen da mozkinak banatzeari dagokionez dagoen araudi murriztailea (non-profit organizations).*
- Jardueraren bidez ondasun **kolektibo** bat lortu nahi du, eta bere helburuen oinarrian guztien interesa edo taldearen interesa gailentzen da, norbanakoaren interesaren gainetik: *batzuek helburu filantropikoa, solidarioa, altruista edo gizarteari erabilgarria izatea deitu diote horri. Era berean, kontu hau lotuta dago irabazi asmorik ez izateko zentzu finalistarekin, horrek esan nahi baitu interesa dagoela besteen ongizatea lortzeko...*
- **Gizarte**-helburuak ditu eta pertsonen eta gizartearen bizitzaren kalitateari eustea edo kalitatea hobetzea du xede, bereziki sektorerik ahulenen bizitza-maila: *hau uler liteke gizarte-eskubideen onarpena eta erabilpena bultzatzeko ikuspegitik.*
- Proiektuak edo programak egiten dituzte **interes orokorreko jardueren** esparruan, eta jarduera horiek dira gizartearen edo pertsonaren aldeko konpromisoa dutenak, eta, hala, gizarte-arloan, erkidegoan, arlo zibikoan, kulturean, garapenerako lankidetzan, ingurumenaren babesean edo antzeko arlo batean aritzen direnak: *hala, bada, arlo ugari hartzen dituzte jarduteko garaian.*
- **Borondatezkoak** dira: *irizpide hau zentzu zabalean uler daiteke, batetik, erakundeak boluntarioen lana bideratzen duelako, eta, bestetik, kudeatze-lana borondatez egiten delako (zuzendaritzako organoak).*
- **Demokratikoak** dira: *erakunde hauen bereizgarria izaten den osagai funtseko bat da haien balioetako batzuk kideen parte-hartze zuzena bultzatzera zuzenduta daudela.*
- **Gizarte zibilak** legezkotzat jotzen ditu.

⁵ Ikusi bibliografiako erreferentziak.

- Interesak lantzeko **bitartekotza-lana** egiten dute (beharrizanak aurkitzea, kritika eta salaketa egitea, kaltetutako pertsonen ordezkaritzan aritzea, aldarrikatzea, sentsibilizatzea...) eta, aldi berean, **zerbitzuak** prestatzen eta kudeatzen dituzte
- **Herritarren ekimen askeen** ondorioz sortu dira.
- (...)

Gizarte ekintzako hirugarren sektorea (ONLAS)

Bestalde, guztiz garrantzitsua da hirugarren sektorea ez nahastea gizarte-ekintzako hirugarren sektorea izenez ondo ezaguna den sektorearekin; azken azpisektore honek pisu kuantitatibo eta kualitatibo ukazina du sektoreko erakundeen multzoan. Gizarte-ekintzako hirugarren sektoreko erakundeak definitzean, lehen adierazi ditugun ezaugarri berberak aipatzen dira, baina badute desberdintasun bat, sektoreko gainerako erakundeetatik bereizten dituenak: beren gizarte-ekintza bereziki zuzenduta dago talde ahulei (baztertuta geratzeko arriskuan dauden horiei) eta gizartean baztertuta daudenei, eta, hortaz, gizartean esku hartzen dutenean talde horiekin aritzen dira⁶ (beren asmoa era askotakoa izan daiteke: arazoei aurrea hartzea, arazoa arintzea, bazterturik geratzeko prozesuak zuzentzea, edota laneratzeko eta gizartean parte hartzeko prozesuak bultzatzea, hala gizarte-zerbitzuen esparrutik, nola arlo soziosanitario, soziolaboral, soziokultural edo gizarte-hezkuntzazkotik...).

Nabarmendu behar da oso garrantzitsua dela azpisektore hori ez nahastea hirugarren sektorearekin, zentzu zabalean; izan ere, era horretan, era askotako esparruetan historikoki egin diren jarduerak ondo onartuko baitira: kulturean, hezkuntza ez formalean, ingurumenean, garapenerako lankidetzan, kirolean, eta abar. Hala, beraz, badu zentzurik hirugarren sektore honetaz hitz egitea, sektore hori osatzen duten erakundeek funtsezko lana egiten baitute, "gizartean dauden beharrizanei" erantzuna ematen eta, azken batean, oro har herritarren –eta ez bakarrik bazterturik geratzeko arriskuan, babesik gabe edo mendekotasun-egoeran dauden herritar horien– bizi-maila hobetzen.

Aintzat har daitezkeen figura juridikoak

Aurreko argibideak gorabehera, zalantza asko dago erakunde-mota batzuk barne hartu edo bazter utzi behar diren erabakitzerakoan. Zalantza horien arrazoiak era askotakoak dira, baina nabarmendu behar da, batetik, definizioak ez direla oso zehatzak, bestetik, araudietako irizpideak oso anitzak direla, eta, azkenik, aipatzen ari garen erakundeak oso ugariak direla.

Fundazioak: "fundazioak dira irabazi asmorik gabe eratu diren erakundeak, eta sortzaileen borondatez beren ondarea diru-sarrerei lotuta dute modu iraunkorrean, interes orokorreko helburu bat betetze aldera". Oro har, esan daiteke adostasun aski dagoela erakunde horiek irabazi asmorik gabeko sektoreko erakunde funtsezkoak direla jotzeko, batez ere, irabazi asmorik ez izateko irizpidea oso zorrotz betetzen dutelako, hau da, ez dute mozkinik banatzen, eta, horren ordez, beren jardueran inbertitzen dituzte berriz.

Alabaina, zalantza batzuk sortu dira, erakunde hauen antolakuntzaren egituran defizit demokratikoa ote dagoen. Batzuetan, zalantzak izaten dira zenbait fundazio sektorean barne hartu behar ote diren erabakitzeko, hain zuzen, gizartean dauden beharrizanak betetzeko

⁶ Definizio batzuek oso ondo adierazten dute sektorea nolakoa den, baina ez dira oso eraginkorrak: "Gizarte-ekintzako hirugarren sektorearen esparrua borondatezkoak diren eta irabazi asmorik ez duten erakunde pribatuek osatzen dute; horrez gain, erakunde horiek herritarren ekimen askearen bitartez sortu dira, era autonomoan eta solidarioan jarduten dute, eta, interes orokorreko ekintzen bidez, gizarte-eskubideen onarpenera eta erabilpena sustatu nahi dute, gizartea bateratu nahi dute arlo guztietan, eta saihestu nahi dute gizarteko talde jakin batzuk ongizaterako behar den mailetatik kanpo bazterturik geratzea." Plataforma de ONG de Acción Social (2006). *Plan estratégico del tercer sector de acción social*. Plataforma de ONG de Acción Social, Madrid: 13. or.

sortutako zerbitzu-erakundeak izateko irizpidea betetzen ez duten fundazioak (merkataritzako izaera baitute nagusi). Horrez gain, kontuan hartzen baditugu independentzia eta autogobernua bezalako irizpideak ere, ez dago batere argi beste fundazio horien kontrola administrazio publikoen eskuetan edo enpresen sektorearen mende dagoen.

Elkartek: Elkartzeko eskubidea arautzen duen legeari jarraiki, esan dezakegu elkarte bat jaiotzen dela hainbat pertsona helburu jakin bat lortzeko elkartzen direnean, hau da, hainbat pertsonak erabakitzen dutenean beren energiak batzea helburu jakin batzuk lortze aldera, bakoitzak, bere kabuz, ezingo bailituzke xede horiek lortu edo eraginkortasun gutxiagoz lortuko bailirateke.

Ezin dute inola ere irabazi asmorik izan, alegia, elkartutako pertsonak ezin dute mozkin ekonomiko material zuzenik lortu eta ezin dute mozkinak elkarren artean banatu; izan ere, erakunde hauen barneko egiturak eta funtzionamenduak demokratikoak izan behar dute (kontrola kide gehienek borondateak zehazten du, eta batzar nagusiaren bidez ematen da aditzera, batzar hori baita organo gorena, kide guztiek eskubide osoz osatzen dutena). Hargatik, erakunde horiek irabazi asmorik gabeko sektorearen oinarritzko zutabeetako bat dira, baina, hala ere, horrek ez du esan nahi aipatzeko moduko salbuespen garrantzitsurik ez dagoenik.

Aipatu dugun legeak berak bere aplikazio-eremurik kanpo uzten du elkarte-mota bat, elkarte horren helburuak eta izaera bera ez baitatoz bat goian adierazi dugunarekin, hainbat arrazoi direla eta (merkataritzakoak direla, independentzia eta autogobernua dela...): *sozietate zibilak, merkataritzakoak, industria- eta lan-arlokoak, kooperatibak eta mutualitateak, aldi baterako enpresa-elkartek, interes ekonomikoko elkarteak eta ondasun- edo jabekide-erkidegoak, alderdi politikoak, sindikatuak, enpresa-elkartek, elizak, erlijio-konfesioak eta -komunitatea, kirol-federazioak, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarteak, erlijio-helburuak lortzeko soilik eratutako elkarteak...* Beste alde batetik, ezin dugu ahaztu elkarte bat helburu bat lortzeko eratzen dela, eta helburu hori interes orokorrekoa (hau da, helburu horren bidez, sozietateak irabazi batzuk eskuratuko ditu oro har, eta ez bakarrik bazkideek) eta/edo interes partikularrekoa (bazkideek baizik ez dute onura jasotzen) izan daitekeela.

Laneratzeko enpresak: laneratzeko enpresak dira ondasunak edo zerbitzuak ekoizteko egiturak dituztenak, eta (...) helburu gisa gizartean desabantailan edo bazterturik dauden taldeak lan-merkatuan sartu nahi dituztenak (...) eta zenbait baldintza betetzen dituztenak; hona hemen bete behar dituzten baldintzak: urteko zenbaketan, gutxienez, plantilla osoko langileen %40 laneratzeko prozesuan izatea eta gehienez %75; eta ekitaldi bakoitzean lortutako gehiegizko soberakin eskuragarriak erabiltzea ekoizteko egiturak hobetzeko edo zabaltzeko, edota gizartean eta lanean txertatzeko prozesuari lotutako jarduerak sustatzeko, baina, inoiz ere ez, mozkinen banaketarik egin gabe.

Jarduerak merkataritzako izaera nabarmenekoak izan arren, gerta daiteke lehentasuna ematea gizarte-ekonomia eta irabazi asmorik gabeko sektoreko instituzioek gehienbat sortu eta kontrolatzen dituzten erakundeak izateari, eta, laneratzeko tresna gisa ulertzen diren neurrian (alegia, ez dutela izaera finalistarik, iragankorra baizik), helburu soziala gailentzen zaio irabazteko asmori.

Gizarte-ekimeneko kooperatibak: Oro har, kooperatibak bezalako erakundeetan pertsona eta helburu soziala kapitalari gailentzen zaio; eta, beraz, irabazi asmorik gabeko kontzeptuari kasu egiten badiogu, zentzu finalistatik abiatuta, esan genezake erakunde horien xedea dela bazkideei edo taldeari zerbitzu egitea eta ez hainbeste irabaziak eskuratzea; eta, horrenbestez, irabazi asmorik gabeko erakundeak izango lirateke. Hala ere, irabazteko asmorik ez izatea "non profit" kontzeptuaren zentzu estuan hartzen badugu –hau da, debekatuta dagoela mozkinak kontrolatzen dituzten pertsonen artean banatzea–, orduan ezin izango ditugu horiek irabazi asmorik gabeko erakundetzat jo, zeren, azken batean, enpresa-sozietateak baitira, eta beren

kideen gizarte- eta enpresa-jarduerak sustatzeko helburua baitute, betiere, kudeatzean eta mozkinetan parte hartzeko printzipiotik abiatuta.

Egile batzuek⁷ erabaki dute beste kooperatiba batzuk ere barne hartzea, hain zuzen, erkidegoari zerbitzu egiteko helburu nabarmena dutenak, esate baterako, gizarteratzeko kooperatibak, hezkuntzakoak, hezkuntza eta eskolakoak, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen kooperatibak, etxebizitzako kooperatibak eta nekazaritzakoak.

Alabaina, akordio argi bakarra gizarte-ekimenaren kalifikazioa duten kooperatibei dagokie. Hauek dira: "irabazi asmorik gabeko kooperatibak, edozein motatakoak direlarik ere, baina helburu sozial gisa xede hauetakoren bat dutenak: laguntza-zerbitzuak ematea, osasun-, hezkuntza-, kultura- edo gizarte-arloko jarduerak eginez; edo, bestela, jarduera ekonomikoren bat egitea, gizartean bazterturik dauden pertsonak laneratzeko, eta, oro har, merkatuak betetzen ez dituen gizarteko beharrianak asebetetzeko". Bestalde, esan daiteke, irabazi asmorik gabekoak izateaz gain, erakunde hauek elkarleen batasunak direla, eta, horren ondorioz, elkarrekin dituzten ezaugarri asko haiek ere badituztela.

Aurrezki-kutxen gizarte-ekintza: Gizarte-ekintza aurrezki-kutxen zati banaezin bat da; instituzioen definizioaren arabera, aurrezki kutxak ezin baitira inola ere ulertu beren emaitzak gizarte-arloko zereginetarako aplikatzen ez badituzte. Aurrezki-kutxak fundazio pribatuaren era berezi bat dira, fundazio-enpresa izenekoak (ondasun bat gizarte-arloko helburuak eta izaera pribatua dituen enpresa-xede bat egiteko bideratzen dute). Enpresa-arloko helburua dute, finantza-erakundeak direlako eta bezeroei eraginkortasun- eta kaudimen-maila altuak bermatu ahal izateko irabaziak lortu behar dituztelako; bestetik, aldiz, helburu soziala ere badute, eta, horren ondorioz, enpresa-zeregina modu jakin batean egin behar dute eta eskuratutako mozkinak erkidegoarentzako gizarte-jarduerak egiteko baliabide bat izan behar du. Erakunde pribatu hauek gizarte-onurarako dira eta ez dute irabazi asmorik (ez dute mozkin partikularrik eragin behar), baina haien kudeaketak soberakina eman behar du, eta hori zenbait helburu lortzeko bideratu behar da; hona helburuak: lehenengoz, sozietateen zergak ordaintzea, kapitalizazioa eta kaudimena indartuko dituen erreserba gisa; eta, gero, gizarte-ekintzako soberakin modura (urtero, gehienez, ekitaldiko soberakin likidoen %50 bideratu daiteke).

Oinarri probatuko eta zuzenbide publikoko korporazioak: Epigrafe honen barruan sartzen dira profesionalen elkargoak, merkataritza-ganberak... eta korporazio hauek, legeen aginduen bidez, zenbait zeregin publiko bete behar dituzte.

Erakunde bereziak: Honelakoak dira Gurutze Gorria eta ONCE, Estatuaren babespean jarduten duten erakunde babestuak (MTAS).

Bibliografia

- Cabra, Miguel Ángel eta de Lorenzo, Rafael (2005). El tercer sector en España. Ámbito, tamaño y perspectivas. *Revista española del tercer sector*, urria-abendua 2005, 1. zk., Fundación Luis Vives, Madril.
- Castiñeira Ángel (koord.), Vidal Pau (zuz.), Iglesias María, Miroso Oriol, Villa Ana (2003). *Libre Blanc del tercer sector cívico social en Catalunya. Documento de síntesis*. Papers de Investigación OTS, 1. zk., Observatorio del Tercer Sector, Bartzelona.
- Castiñeira Ángel (koord.), Vidal Pau (zuz.), Iglesias María, Miroso Oriol, Villa Ana (2003). *Libre Blanc del tercer sector cívico social*. Centre d'Estudis de Temes Contemporanis (CETC) eta Generalitat de Catalunya. Departament de la Presidència. Secretaria General de Benestar i Família, Bartzelona.

⁷ Ruiz Olabuénaga, Jose Ignacio (zuz.) (2000): *El sector no lucrativo en España*. Fundación BBV, Bilbao.

- Chaves Rafael eta Monzón Jose Luis (2001). Economía social y sector no lucrativo: actualidad científica y perspectivas. CIRIEC-España, *Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa*, 37. zk., Centro Internacional de Investigación Inform. sobre la economía pública social y cooperativa, Espainia.
- CIDEA (Centro de Investigación y Documentación sobre problemas de la Economía, el Empleo y las Cualificaciones Profesionales) (2004). *El tercer sector. Una visión cuantitativa y cualitativa. Cuadernos de trabajo*, 39. zk., Donostia-San Sebastián.
- Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila (2005). El sistema público de los servicios sociales y tercer sector en la CAPV (reflexiones y recomendaciones del Consejo Vasco de Bienestar Social). *Avanzando en los servicios sociales. Cuadernos de Bienestar Social*, 1. zk., Eusko Jaurlaritzako Argitalpenen Zerbitzu Nagusia, Vitoria-Gasteiz.
- Fantova, Fernando (2001). *La gestión de organizaciones no lucrativas. Herramientas para la intervención social*. CCS, Madrid.
- Fte. Chaves Rafael eta Monzón Jose Luis (2001). Economía social y sector no lucrativo: actualidad científica y perspectivas. CIRIEC-España, *Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa*, 37. zk., Centro Internacional de Investigación Inform. sobre la economía pública social y cooperativa, Espainia.
- Fundación Bancaja (1999). *Gestión de las Organizaciones sin fin de lucro*. Valentzia.
- Gomà Ricard, Subirats Joan, Giménez Laura (koord.) (2001). *Seminari sobre el Tercer Sector*. Espais de reflexió, 5. zk., Generalitat de Catalunya. Departament de la Presidència. Secretaría General de Juventud, Bartzelona.
- Piñar, Jose Luis (2005). Tercer sector, sector público y fundaciones. *Revista española del tercer sector*, urria-abendua 2005, 1. zk., Fundación Luis Vives, Madrid.
- Plataforma de ONG de Acción Social (2006). *Plan estratégico del tercer sector de acción social*. Plataforma de ONG de Acción Social, Madrid.
- Rodríguez, Gregorio (2005). Los retos del tercer sector en España en el espacio social europeo. Especial referencia a las organizaciones de acción social. *Revista española del tercer sector*, urria-abendua, 2005, 1. zk., Fundación Luis Vives, Madrid.
- Ruiz Olabuénaga, Jose Ignacio (zuz.) (2000): *El sector no lucrativo en España*. Fundación BBV, Bilbao.
- Vernis Alfred, Iglesias Maria, Sanz Beatriz, Solernos Maria, Urgell Jaume, Vidal Pau (1998). *La gestión de las organizaciones no lucrativas*. Ediciones Deusto, Bilbao.
 - 50/2002 Legea, abenduaren 26koa, fundazioei buruzkoa.
 - 61/2000 Dekretua, apirilaren 4koa, gizarte-ekimeneko kooperatibak arautzen dituen.
 - 305/2000 Dekretua, abenduaren 26koa, laneratzeko enpresen kalifikazioa arautzen, enpresa horietara sartzeko prozedura ezartzen eta laneratzeko enpresen erregistroa sortzen duena.
 - 589/1984 Errege Dekretua, otsailaren 8koa, Eliza Katolikoaren erlijio-fundazioei buruzkoa.
 - 142/1981 Errege Dekretua, urtarrilaren 9koa, erlijio-erakundeen antolakuntzari eta funtzionamenduari buruzkoa.
 - 27/1999 Legea, uztailaren 16koa, kooperatibei buruzkoa.
 - 3/1988 Legea, otsailaren 12koa, elkarteei buruzkoa.
 - 4/1993 Legea, ekainaren 24koa, Euskadiko kooperatibena.
 - 12/1994 Legea, ekainaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoko fundazioei buruzkoa.
 - 1/2000 Legea, ekainaren 29koa, Euskadiko Kooperatiben Legea aldatzen duena.
 - 1/2002 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, elkartzeko eskubidea arautzen duena.
 - 8/2006 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskadiko Kooperatiben Legea bigarren aldiz aldatzen duena.